

## 2. MAILA

### 3. ZATIA

#### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei bere fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (ikus. liburuxka berdean, 3. or.).
- Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Gehiago: [euskaragara.net](http://euskaragara.net)

#### 1. ARGAZKIA:

### Autoen garaian bizi gara

Irratsaio batera gonbidatu zaituztete, autoa eta trafikoari buruz hitz egiteko. Zalantzarik gabe, autoak abantaila ugari ditu, baina buruhauste galantak ere eragiten ditu. Argazkietan arazo desberdinak ikusiko dituzue: auto pilaketak, istripuak, autoek suposatzen duten gastua, kutsadura, aparkalekua eta puntukako gidabaimena (isunak ... ). Adostu bion artean zein arazo den kezkarriena eta adierazi horrela pentsatzeko daukazuen arrazoak.

#### GALDERA OSAGARRIAK

- Iruditzen al zaizue jendeak gehiegi erabiltzen duela autoa?
- Ba al duzue zuek autorik?
- Zer egin daiteke jendeak autoa gutxiago erabiltzeko?



Auto pilaketak



Kutsadura



Isunak

Gehiago: [euskaragara.net](http://euskaragara.net)

## Zein da arazorik kezkarriena?

Gastua



Aparkatzeko arazoak



Istripuak



Oharra: Azterketan ez ohi dira lagungarriak agertzen



**Erosketak egin**



**Harrikoa egin**



**Hautsa kendu**

**ETXEKO LAN HAU NIRETZAT ETA BESTE HAU ZURETZAT ...**



**Plantxa egin**



**Bazkaria egin**



**Bainugela garbitu**

Oharra: Azterketan ez ohi dira lagungarriak agertzen

## B2 MAILA

### 3. ZATIA

#### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei bere fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- a. Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- b. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (ikus. liburuxka berdean, 3. or.).
- c. Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

## 2. argazkia      Etxeko lan hau zuretzat eta beste hau niretzat..

Elkarrekin bizi zarete eta etxeko lanak banatzeko asmoz batu zarete. Badakigu etxeko lan batzuk gustukoago ditugula eta beste batzuk, aldiz, ez zaizkigu batere gustatzen. Adostu bion artean bakoitzak zein etxeko lan egingo duen, hau da, zuen artean banatu behar dituzue etxeko lanak eta adierazi zuen arrazoiak..

#### GALDERA OSAGARRIAK

- Zuen etxean nola duzue antolatuta etxeko lanen banaketa?
- Gizonezkoen lana edo emakumezkoen lana... norena da?



**Atzerrira joan**



**Irakasle partikularra**



**Taldeka**

## Hizkuntzak ikasteko modurik onena?



**On-line ikastaroak**



**Bakarkako metodoak**



**Filmak eta telesailak**

Oharra: Azterketan ez ohi dira lagungarriak agertzen

## B2 MAILA

### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da. Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariek ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu ...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

### 3. argazkia. Hizkuntzak ikasteko modurik onena

Hizkuntzak ikasteko modu desberdinak daude. Jarraian, 6 modu aurkeztuko zaizkizue. **Adostu** bion artean zein den modurik onena eta zein ez. Horretarako, **aztertu** modu bakoitzaren alde onak eta txarrak eta **eman erabakiaren** arrazoiak

#### Galdera osagarriak:

- Zuk nola ikasten ari zara gaur egun?
- Moduotatik zein erabili duzu zure ikasprozesuan zehar?
- Euskaraz gain zein beste hizkuntza dakizu eta nola ikasi duzu? Azaldu

## 2. MAILA

### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

2. Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
3. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (ikus. liburuxka berdean, 3. or.).
4. Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

## 4. argazkia. Interneten erosi?

Etxeko hozkailua eta armairuak hutsik dituzue. Bi aukera dituzue: autoa hartu eta hipermerkatu batera joan edo Interneten sartu eta eskaera egin. Baina zalantzan zaudete. Argazkiak ikusi, eta hitz egin bi aukeren alde on eta txarrei buruz, eta erabaki nola egingo dituzuen erosketak eta zergatik.

### GALDERA OSAGARRIAK

- Inoiz egin duzu Internet bidezko erosketarik? Nolako arazoak sortu zaizkizu?
- Azaldu zuk zein produktu erosiko zenukeen/ ez zenukeen erosiko Internet bidez? Zergatik?
- Internet bidezko erosketek arrakasta izango dute etorkizunean? Zergatik?




## Interneten erosi ala dendara joan?

Gehiago: [euskaragara.net](http://euskaragara.net)








Zarama lurrean utzi



Kotxea bigarren ilaran



Txistu egin kalean




Kalean txiza egin

## JOKABIDERIK GAITZESGARRIENA, ZEIN DA?



Hormetan margotu



Leihotik zikinkeria botatzea



Kotxetik zikinkeria botatzea



Txakurren gorotzak ez jasotzea

Oharra: Azterketan ez ohi dira lagungarriak agertzen

## B2 MAILA

### 3. ZATIA

#### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei fitxa eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxa aurrean dutela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleek jardun bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.

Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

### 5. Argazkia. Zein da jokabiderik gaitzesgarriena?

Jendeak izan ohi dituen jakabide gaitzesgarri edo txar batzuk agertzen dira. Adostu behar duzue zein den gaitzesgarriena eta horretarako komenta itzazuen bakoitza zer iruditzen zaizuen.

#### GALDERA OSAGARRIAK

- Zein da zure inguruan gehien ikusten duzuna?
- Arazo hau konpontzeko irtenbideak: isunak jarri, kontzientziazio kanpainak... Komentatu

## 2. MAILA

### 3. ZATIA

#### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

- Azterketariei argazkien fitxa eman (bakarra bientzat) eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da.
- Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariek ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.

Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

### 6. ARGAZKIA:

## Nola ikusten gaituzte?

“8 abizen euskaldun” pelikulak mahai gainean utzi ditu euskaldunen topiko asko. Topiko guztiak bezala, bat bera ere ez da er abat egia, baina herriak definitzen laguntzen dute. Jarraian euskaldunei buruzko hainbat topiko agertzen zaizkizue. **Adostu** nolakoak garen euskaldunak, nola ikusten gaituzten. **Aukeratu** ondoen bereizten gaituzten lau ezaugarri. Horretarako, **aztertu** aukera guztiak eta **erabaki** zein puntutaraino diren egia ala gezurra. **Aukeratu** lau esanguratsuenak, eta, azkenik, zuen erabakiaren **arrazoiak eman**.

#### GALDERA OSAGARRIAK

- Azaldu ezagutzen dituzun beste herri batzuetako topiko batzuk.
- Herri bati buruz hitz egitean topikoak erabiltzea mingarria izan ahal da? Zergatik?
- Zer dakizue “8 abizen euskaldun” pelikulari buruz? Zer iruditu zaizue?



Abertzaleak



Alaiak



Alferrak



Erromantikoak

## Nola ikusten gaituzte?

Jatunak



Lagun onak



Zekenak



Tradizio zaleak





**Internet**



**Bidaiak**



**Diskotekak / Tabernak**

## Non ezagutu ditzaket lagun berriak?

Gehiago: [euskaragara.net](http://euskaragara.net)



**Unibertsitatea / Euskaltegia**



**Hondartza**



**Lantokia**

Oharra: Azterketan ez ohi dira lagungarriak agertzen

## B2 MAILA

### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da. Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariak ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu ...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

### 7. argazkia. Non ezagutu ditzaket lagun berriak?

Lagun berriak ezagutzeko aukera desberdinak agertzen dira hurrengo irudietan. Denetara sei agertzen dira. **Adostu** bion artean zein den lekurik onena lagun berriak ezagutzeko eta zein ez. Horretarako, **aztertu** aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak eta erabakiaren **arrazoiak eman**

#### Galdera osagarriak:

- Gaur egungo zure lagunak non ezagutu dituzu?
- Gogoratzen al dituzu txikitako lagunak? Azaldu?
- Lagunak ezagutzeko leku gehiago ezagutzen al duzu?